



ITUN BERDEA ENPRESEN KOMUNITATEAREN MANIFESTUA

Itun Berdearen kide garen enpresek hurrengoarekin bat egiten dugu:

1. Gizakiak aurre egin behar izan dion erronka handienak, klima aldaketak, behartzen gaitu aurrekoarekin apurtzen duten presazko ekintzak martxan jartzera, eta, administrazio publikoarentzat eta gizarte zibilarentzat ez ezik, ekoizpenaren munduarentzat ere lehentasuna izan behar du.
2. Jakin badakigu ardura dugula, eta rol protagonista, egungo ekoizpen ereduak behar duen aldaketa lortzeko eta baliabide mugatuak dituen planetaren materialak kontsumitzeari utzi dion ekoizpen eredura heltzeko.
3. Eraginkortasun energetikoa zein materiala handitzeak errentagarritasuna dakar, prozesuen optimizazioari esker, eta egoera aldagarrien aurrean gure enpresen erresilientzia handitzen du.
4. Ekonomia berdearekin eta ekonomia zirkularrarekin lotuta dauden ekoizpen eta zerbitzu ereduak gaitasun handia dute enplegua sortzeko, eta laguntzen dute enpresak lurraldean bertan geratzen eta, hortaz, tokiko garapen iraunkorra lortzen.
5. Konpromisoa dugu planetarekin, gure jarduera garatzeko behar ditugun baliabideak eskuragarri jartzen baitizkigu, eta konpromiso hori Gasteizetik lotura bilakatzen da; azken finean, jarduera ekonomikoei aukerak eskaintzen dizkien lurralde bat da, eta hori bere ondare handiena Natura duen hiri berdearen baloreekin bateragarria da.

*Zerbait egiteko garaia da!
Egin bat Itun Berdearekin*